



EAEko ERAKUNDEEN JARDUNA NERABEEN DROGA KONTSUMOAREN ARLOAN IZENBURUKO TXOSTEN BEREZIA AURKEZTEN DIO ARARTEKOAK GIZA ESKUBIDEEN ETA HERRITARREN ESKAEREN BATZORDEARI

2010eko ekainaren 23a

- Batzuetan, Ararteko Erakundeak egindako txosten berezietan, gutxi ezagutzen diren, gutxitan landu diren edo eskaera sozial urria duten egoera edo problematikei heltzen zaie. Baita adingabeei buruzko gaiari dagokionez ere. Adibide gisa har ditzakegu honako Batzorde honetan aurkeztutako sasoikako langileei eta bakarrik dauden adingabe atzerritarrei buruzko txostenak.

Gaurko gai honetan, ordea, ez da holakorik gertatzen. **Gaurkoan aurkezten dugun txostenak Eusko Legebiltzarraren eskaerari erantzun eta gizartean maiz eztabaidatu eta kezka sortu ohi duen gai bati heltzen dio: nerabeen eta drogen arteko harremana, hain justu, sarri askotan arazoak sortzen dituen.**

Izan ere, honako Legebiltzar honetan eztabaidapean jarritako hainbat proposamen eta interpelazioren gai nagusia, batzuetan, drogen kontsumoa prebenitzeko politikak izan dira, beste batzuetan, ordea, nerabe eta gazteei loturiko zenbait kontu espezifiko, hala nola, "litroak egitea" edo gaztelaniazko botiloi izenez ezagutzen dugun fenomeno edo mendekotasunaren ondorioz arazoak dituzten nerabeak artatzeko baliabide edo programa espezializatu gehiago egon behar diren edo ez.

Honako txosten hau egiteko Arartekoak hartu duen konpromisoaren abiapuntua Eusko Legebiltzarrak berak onartutako lege besteko proposamenean datza, hain zuzen ere, honela dioena: "Arartekori eskatzen dio egin dezala txosten bat nerabeek alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoarekin dituzten arazoei eta mendekotasunei buruz eta horiei erantzuteko dauden baliabide publikoei buruz" (2006ko urriaren 16ko Osoko bilkura).

Eztabaida eta proposamen horiek, zalantzarik gabe, gizarteak gai horien inguruan duen kezka isla dira. Gai horiek askotan agertu ohi zaizkigu hedabideetako tituluetan ("Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko adingabeak 14 urterekin hasten dira alkohola edaten"; "Bilbon, urtarrilaz geroztik, DYAk egoera etiliko larrian zeuden 42 adingabe artatu ditu"...), edo administrazioek esku hartzeko eskaerak sorrarazi dituzte (adibidez, DYAk lehendakariak, besteak beste, Arartekoari berari bidalitako eskutitz publikoa), edo erakundeek sustatutako ekimenei bide eman diete (aisialdi alternatiboa sustatzeko programak, esperientzia pilotuak...). Azken finean, gure gizartean kezka handia eragiten duten gaiak dira.



Hala eta guztiz ere, kasu honetan, ez gaude, inola ere, ezezaguna egiten zaigun kasu baten aurrean. Izan ere, aurreko hainbat ikerlanetan aztertu den gaia da, gutxienez azken 25 urteotan. Adibide gisa har dezakegu “Drogak eta Eskola” ikerlan saila, zazpigarren emanaldira iritsi dena. Argitaratutako ikerlan horietako gehienak epidemiologikoak dira eta adingabeek drogekin duten harremanaren bilakaera ezagutzeko behar diren datuak ematen dizkigute.

Horrela, aldizka, drogen kontsumoaren bilakaera, kontsumoaren aurreko jarrerak, permisibitate mailak, jokabide eta jarrera desberdinei loturiko balio sistemak, kontsumo mailekin erlasionaturiko faktore psikologikoak, ikuspegi pedagogikoa eta abar ezagutzeko azterlanak egin dira.

Are gehiago, “litroak egitea” bezalako gai espezifikoetarako buruzko azterlan bat edo beste egin da (adibidez, *Más allá del botellón: análisis socioantropológico del alcohol en adolescentes y jóvenes* izenburuko liburua, Elzo, Laespada eta Pallares, 2003; “Drogak eta Eskola VI” ikerlanean zehaztasunez aztertzen dena ere), era berean, leku zehatzetako eskoletako ikasleei buruzko azterlanak badaude (adibidez, Donostian, zenbait urtetan; Gasteizen, 2003an...), bai eta, biztanleriaren sektore jakin batzuen iritzia jasotzen dutenak ere (adibidez, irakasleena (2003).

Hori guztia hartu da kontuan oraingo honetan aurkezten dugun **txostenaren ikuspegi** eztabaidatu eta erabakitzerakoan, hortaz, txosten honek aurreko azterlanetako datuak erabiltzeaz gain, jada ezagunak direnak, harago joan nahi izan du: **gehienbat, egoera aldakorren aurrean erakundeek** (tokikoak, autonomikoak...) **ematen dituzten erantzunak aztertzen ditu; emaitzak zein diren, eragileek emaitza horri buruz duten iritzia zein den, sendotu edo hobetu beharreko jardura ildoak zein diren...** Erakundeen erantzuna eta kontsumoekiko Erkidegoko erakundeek duten erantzukizuna dira, beraz –izenburuan bertan islatu den bezala–, txostenaren kontu nagusia.

Txostenaren xehetasunak aipatu aurretik, eta lehen hurbilketa orokor gisa, adieraz genezake txostenak azaltzen duen egoera, hasieran, kontraesankorra dela pentsa daitekeela: alde batetik, **erakundeek** (tokiko erakundeek, ikastetxeek...) **konpromiso handia dute** drogen kontsumoa edo, gutxienez, drogei loturiko arriskuak gutxitzeko helburuarekin nerabeei zuzendutako programa eta ekimenen bidez; **eta, hala ere**, urteak joan urteak etorri, **kontsumoak eta arriskutsuak izan daitezkeen jarduerak berdin jarraitzen dute**, eta adinaren arabera edo substantziaren arabera, kontsumoa eta jarduerak batzuetan areagotu egiten dira.



Esaterako, azken ikasturteetako bakoitzean, ikastetxeetan egin diren prebentzioko jarduerak maila guztietako 100.000 ikaslerengana heldu ziren. Izan ere, DBHko 2. zikloko ikasleen %74k, edo batxilergoko ikasleen %83k euren ikastetxeetan drogei buruzko informazioa jaso dutela adierazi dute.

Hala ere, kontsumoari buruzko datuak irmoak dira: EAEko ikasleen artean, %28k erretzen du, nahiz eta erretzaileen ehuneko handienak (%7,5) egunean zigarro 1etik 5 zigarrera bitarte erretzen dituela esaten duen. Gazteen %40,5ek alkohola 40 aldiz edo gehiagotan probatu du bere bizitzan zehar. Azken urtebetean, %24,8k maiztasun berarekin kontsumitzen jarraitu izan du, eta %3,4k egunero hartzen du, azken hilabetean alkohola 40 aldiz edo gehiagotan edan duelako. Bizitzan zehar %44,5ek probatu du haxixa; azken urtebetean, %35,5ek, eta azken hilabetean, %26k. Erretzeko ohitura duten pertsonen artean (hau da, azken hilabetean kontsumitzen jarraitu dutenak), %8,2 *cannabis*aren arriskuko kontsumitzailetzat hartzeko modukoak dira. Legez kontrako drogen sailkapenari dagokionez, kokainak du bigarren postua, eta gero anfetaminak eta abarrak datoz. Laster, datu batzuen aipamena egingo dugu berriro ere.

Datuok adierazitakoaren arabera, drogen eta nerabeen arteko erlazioak hedatze handia du gure gizartean. Hala ere, **ikasle gehienek noizbait drogaren bat edo batzuk probatzen dituzten arren (batez ere tabakoa, alkohola eta *cannabisa*), egia da gehienek ez dutela drogak aldizka kontsumitzen jarraitzen denbora aurrera joan ahala.** Hortaz, garrantzitsua da desberdintzea noizean behin kontsumitzea, maiz kontsumitzea, arrisku larriarekin kontsumitzea, mendekotasuna... Zorionez, nerabe askok ez du drogarik kontsumitzen edo noizean behin kontsumitzen du, askotan garapen prozesuari lotuta, esperimintatzeko edo taldean sartzeko, kide berdina izanik. Horrek ez du esan nahi, halabeharrez, etorkizunean droga-mendekotasuna duen pertsona izango denik.

- Agerian dagoenez, **txostenak** –joan den apirilaren 19an Legebiltzarreko lehendakariari emana, jendaurrean jarria eta banatua– **berezko izaera duten bi zati nagusi ditu: lehenengoa *Datuei* buruzkoa; eta bigarrena *Iritziei* buruzkoa, bertan jaso eta aztertu baititugu iritziak.**

Txostenaren bukaeran sintesi atala dei genezakeen bi kapitulu sartu ditugu (adibidez, 8. kapitulu "Ondorioak" edo "Arartekoaren Gomendioak" 9. kapitulan). Zazpigarren kapitulan Europako hainbat herrialdetan burutu dituzten programa ugari bildu dugu, ebaluazio positiboa jaso dutenak, jardun egokien adierazle gisa har daitezkeenak eta gure esku-hartzeak hobetzeko jarraibide gisa erabil ditzakegunak.



“Datuak” delakoari dagokionez, txostenak gure inguruko kontsumo ereduen gaineko ibilbide historikoa egiten du (1. kapitulua), ondoz ondoko droga-mendekotasunei buruzko planen azterketa egiten du (2. kapitulua), ikasleek kontsumitzen dituzten substantziei buruzko datu nagusiak laburbiltzen ditu (3. kapitulua) eta 4. kapitulutik aurrera, argi eta garbi desberdintzen ditu esku hartzeko “esparru” eta “eremu” nagusiak. Oro har, prebentzio unibertsala eta prebentzio selektiboa. Eta, bi esparru horien barruan eskola, familia eta komunitate eremuak; izan ere, inguru horietan biltzen da gazte jendea nagusiki. Beraz, droga-mendetasunei buruzko plan askotan erabili izan den egiturari jarraitu zaio; zehazki, V. Planeko egiturari (azterlan hau egin arte onartu den azkena). Arartekoaren gomendioetan ere eskema horri jarraitu diogu nolabait.

“Iritziak” zatiari dagokionez, 5.3. kapitulu edo atalean arreta berezia jartzea eskatu nahi dugu: **kapitulu horretan nerabeen beraien ahotsa bildu dugu**. Hor nerabeek hainbat eta hainbat konturen gainean duten iritzia bildu dugu, alegia, zer den haientzat prebentzioa; haien ustez, nor den toxikomanoa, zergatik kontsumitzen duten; drogak erraz eskuratzen ote dituzten; adinak edo sexuak kontsumoan duen eragina; nola “sailkatzen” dituzten drogak “haiek”, nola balioztatzen duten eragile sozialen esku hartzea (polizia, eskola, familia, hedabideak...). Gai horretan eta haiei dagozkien guztietan, oso garrantzitsua iruditzen zaigu adingabeen ahotsa eta proposamenak jasotzea: haien iritzia modu zuzenean ezagutzea.

Nolanahi ere, eta logikoa denez gero, beste gizarte eragile batzuen iritzia ere bildu ditugu (5. eta 6. kapituluetan); besteak beste: familiak, irakasleak eta adingabeekin erlazioa duten beste gizarte instantzia batzuk ere.

- Alabaina, “datuak” eta “iritziak” zatiak aztertu baino lehenago, eta testuinguruan kokapen zein balioztatzen hobea izate aldera, **gure ustez, oso garrantzitsua da nerabeek drogak kontsumitzeko duten jarrera isolatutako fenomeno gisa ez aztertzea, gure gizarteko testuinguruan baizik.**

Horretara, gogoan izan behar dugu gure gizartean hainbat droga daudela; eta, legezkotasunaren eta gizarte praktiken ikuspegitik, egoerak oso desberdinak izan daitezkeela: legezko eta legez kanpoko drogak daude; onartutako -eta sozialki begi onez ikusten direnak- eta debekatutako edo gaizki ikusitako kontsumoak; adinez nagusientzako legezkoak diren kontsumoak eta erosketak, baina adingabeentzat, ordea, legez kanpokoak direnak; substantzien kontsumoa eta salmenta arautzen dituzten tokiak eta debekatzen dituzten tokiak... Gure aurrean ditugun balioztatzen eta praktika horiek ez daude beti kontraesanetatik salbu.



Gizarte honetan kontsumo produktu bat gehiago izateaz gain, ia pertsona guztiek kontsumitzen dute drogaren bat, nahiz eta noizbehinka baino ez izan. Bestalde, hainbat arrazoi direla medio, adingabekoen kontsumoari, eta bereziki nerabeenari, arreta eta ardura berezia jartzen diegu, arrazoi batzuk besteak baino zentzuzkoagoak direlarik. Honako arrazoi hauek izan daitezke:

- hainbat eta lehenago kontsumitzen hasi, orduan eta okerragoak izango direlako kalteak osasunean, eta, beraz, hasieraren adina ahal bezain beste atzeratu behar da;
- arriskua gutxi baloratzea edo hautematea nerabeen ezaugarri delako, areago, batzuetan arriskuak erakartzen ditu nerabeak;
- adin horietan berdinkideen taldeko presioa oso indartsua delako, eta, askotan, drogak kontsumitzea taldean sartzeko modua da, taldekide izatea lortzeko edo demostratzeko bidea;
- gazte jendea toki publikoetan kontsumitzen ibiltzeak herritarren beste talde batzuetan desatsegina suertatzen delako;
- nerabeen kontsumo ugari helduen kontrolik apenas duten aisialdi gune eta uneetan egiten direlako...

Bistan da arrazoi horiek guztiek edo adieraz ditzakegun beste batzuek ez dutela oinarri edo balio bera prebentzioko politikak bideratzean, edo nerabeen drogaren kontsumoei erantzun bat ematerakoan. Honako erakunde honen ikuspegiaren arabera, logikoki, adingabeek osasunerako duten eskubidea da, besteen aurrean, lehentasunezko arrazoi nagusia.

Horrenbestez, nerabeek drogak kontsumitzeari buruzko politikek koherentzia mantendu behar dute herritar guztien politika eta jarduerekin. Beti bizimodu osasungarria sustatu behar dute eta, horretarako, helburuak eta jarduerak inguruabarretara egokitu behar dira, adina, zaugarritasuna edo eraginik handiena izan dezaketen eremuak aintzat hartuta. Gure iritzirako, irizpide hori funtsezkoa da, nahiz egin dena balioztatzerakoan, nahiz etorkizuna planifikatzerakoan.

* * *


Batzordean egiten ari garen aurkezpen honetan, halaberrez laburbildua, orain arte aipatutako kontzeptu orokorrez gain, jarri nahi dugu arreta osoa gure ustez funtsezkoak diren eta txostenaren ikuspegi orokorra eskaintzeko aukera ematen diguten lau alderditan, honatx:

- Lehenik, zenbait datu ekarriko ditugu gogora, nola kontsumoei buruzkoak hala programei eta erakundeen jarduketei buruzkoak.
 - Bigarrenik, gaian urte asko lanean jardun duten profesionalen arteko adostasun handiko oinarritzko kontuak azpimarratuko ditugu.
 - Hirugarrenik, nerabeen iritziak laburbilduko ditugu, eztabaida-talde desberdinetan adieraziak izan direnak.
 - Laugarrenik, laburbildurik, Arartekoak egindako gomendioen eta horien justifikazioaren aurkezpena egingo dugu.
- DATUEI dagokienez, gure iritzirako azpimarragarrienak direnak besterik ez da aipatuko, txostenaren 3. kapitulutik ateratakoak, hain justu.

Kontsumoen inguruko datuak “Drogak eta Eskola VII” ikerlanetik hartu dira, gure txostena egin zenean oraindik argitaratu gabe zegoena eta abantaila bat duena, urte batzuen zehar gertatutako bilakaerari buruzko konparaziozko datuak eskaintzen baitizkigu.

Horretara, esaterako, drogak kontsumitzen hasteari dagokionez, **tabakoa** da nerabeek aukeratzen duten bigarren legezko substantzia, txostenaren grafikoan ikus dezakegunez, 2006. urtean ikasle erretzaileak %28 ziren, 1996an baino %8,9 gutxiago. Ikusten da 2006an gazte erretzaileen ehuneko handienak (%7,5) egunero kontsumitzen duen tabako kantitatea zigarro 1etik 5 zigarrra bitartekoa dela. Zigarro kopurua igo ahala, erretzaileen ehunekoak behera egiteko du. Egunean 20 zigarro baino gehiago erretzen zutenak %1 baino ez ziren

1. Grafiko. EAEko ikasleen azken hilabeteko tabako kontsumoaren prebalentzia. 1996-2006 (ehunekotan)



Hala ere, tabakoa kontsumitzen lehenago hasten ziren 2006. urtean, hamar urte lehenago baino bada, 2006an substantzia horrekin esperimentatzen gehienbat 13 urterekin hasten ziren, eta 1996. urtean, oster, esperimentatzeko adin nagusia 14 urtekoa zen. Ikasle erretzaileen sexua aintzat harturik, ikusten da gizonezkoek eta emakumezkoek kontsumo maila bera dutela, eta horrek berretsi egiten du emakumeak ohitura horretan sartu direla, azken urteetako joeretan ageri zenez.

1. Taula. Tabako kontsumoaren maiztasuna, sexuaren arabera.
EAE, 2006 (ehunekotan)

	Egunean 1 baino gutxiago	Egunean 1-10	Egunean 11 eta gehiago
Gizonezkoak	49,2	49,8	51,9
Emakumezkoak	50,9	50,2	49,1
N	404	636	219

Alkoholari dagokionez, txostenean argi bereizten dira bizitzan zehar noizbehinka egindako kontsumoak (hau da, probazko edo esperientziatzko kontsumoak) eta erregularragoak diren bestelako kontsumoak. Adibidez, azken hilabetean egindako kontsumoak, horren datuak pantailan agertzen direlarik:

	SEXUA			ADINA			
	GUZT.	Gizon.	Emak.	12 - 13	14 - 15	16 - 18	19 eta +
Edari alkoholdunak "azken hilabetean"							
Behin oro ez	39,6	38,5	39,7	75,2	43,4	19,2	13,2
1-2 aldiz	15,1	13,3	17,2	7,3	19,5	17,2	16,2
3-5 aldiz	14,4	14,2	14,6	3,6	12,9	23	16,9
6-9 aldiz	9,5	8,5	10,7	2	8,2	14,5	13
10-19 aldiz	8,6	8,4	7,8	0,9	5,4	12,3	18,1
20-39 aldiz	3,8	4,5	2,9	0,3	2	5,2	9
40 aldiz edo gehiagotan	3,4	4,5	2,2	0,3	1,3	4,3	9,2
Erentzunik ez	6,7	7,1	6	10,4	7,4	4,3	4,4

Datuak ikusirik, era askotako irakurketak egin daitezke: adinaren arabera, sexuaren arabera, ustez, arazorik gehien agertzen duten kontsumoen maiztasunaren arabera... Zorionez, maiztasun handienetan ikusten ditugun gazteen ehunekoa (40 aldiz edo gehiagotan) nabarmen txikiagotzen da. Hau da, gazte askok (guztien %40,5eraino) alkoholarekin esperimentatzen dute "noizbait bizitzan zehar", alabaina, ehunekoek behera egiten dute kontsumo erregularragoa edo ohikoagoa denean, hots, "azken urtebetean" (%24,8); "azken hilabetean" (%3,4) maiztasunetan.



Dena dela, kontsumoaren maiztasunaren inguruko datuak dira, kontsumitzen den alkohol kantitateak aipatu gabe. Ildo horretan, kezka sorrarazten duten datu batzuen arabera, edaten den alkohol kantitatea gehitu egin da, horrek "arriskuko edaleak" deritzon kategorian gehikuntza gertatzea zekarrelarik. Neurrizko kontsumoa da egonkorrena, antza denez. Nerabeen populazioaren heren batek, gutxi gorabehera, "neurritz" hartzen du alkohola.

Neska-mutil abstemioen proportzioa handitzea da datu positibo bat, 1996. urtean, alkohola probatua zutenen kolektiboa %79,4 zen; orain, %74,3, horrenbestez, hamar urteren buruan alkoholaren kontsumora gerturazten diren ikasle nerabeen proportzioa apur bat txikiagoa da.


Halaber, azpimarratu beharra dago mutilen eta nesken alkohol kontsumoak hurbilduz joan direla azken urteotan, eta, hala, bi sexuetakoek oso antzera kontsumitzen dute. Beste era batera esanda: neskak gizonezkoen eredura hurbildu egin dira.

Kalean taldeka edateko modua, hau da, "litroak egitea", alkohola merkeago eta helduek adingabeengan kontrol txikiago izanez alkohola eskuratzeko modua da. Alabaina, ez da hori azalpen bakarra; jai eta gizarte funtzionaltasuna du ere bai. Nolanahi ere, litroak egiteak gizartean oihartzun handia badu ere, komenigarri da adieraztea praktika hori ez dela nabarmen areagotu gazteen artean aztertutako azken lau urteotan. Hala, 2002. urtean, %47k litroak eginak zituen noiz edo noiz, eta 2006an, ordea, %51,7k. Dena dela, praktika areagotu egin da, eta asteburuetan, 2002. urtean baino maizago ekiten da.

Kezkagarritzat jo dezakegu, beraz, nerabeen alkohol kontsumoei buruzko datuen zati handi bat, heldua izateko prozesuan daudenen osasunean eragina dutelako

Legez kanpoko drogei dagokienez, kontsumo eta bilakaerari buruzko datuak (1996 eta 2006 bitarteko aldian) hurrengo grafiko honetan adierazten dira:

2. Grafikoa. DBHko, DBHOko eta ELHko ikasleek legez kanpoko drogak kontsumitzea. EAE, 1996-2006 (ehunekotan)



Datuok ikusirik, irakurketa positiboa egin daiteke nerabeen eta gazteen kontsumoari dagokionez, izan ere, mota horretako drogak (legez kanpokoak badira ere, eskuratzeko aukera dute) behin ere probatu ez dutenen ehunekoa, alegia, erdia baino gehiago *cannabis*aren kasuan eta hamarretik bederatzi baino gehiago bestelako drogen kasuan.

Aldiz, 1996. urteko eta 2006. urteko datuak alderatuz gero, irakurketarik negatiboena egingo genuke seguru asko, izan ere, estasiaren eta heroinaren kasuan izan ezik (kontsumoaren ehunekoak berdin mantentzen direlako), gainerako substantzietan kontsumoak gora egin du, bereziki *cannabis*arena eta kokainarena.

***Cannabis* kontsumoari** dagokionez, interesa piztu da hura kontsumitzen duten pertsonentzat berriazko diagnostiko bat ezartzeko. Europar Batasunean irizpidea da azken hilabeteen *cannabisa* 20 aldiz edo gehiagotan kontsumitu duten pertsonak arriskuko kolektibotzat har daitezkeela, hots, kontsumo eredu arazotsua garatzeko joera izan dezaketela. EAEn aztertu den kolektiboan, %8,2 lirateke, Europar Batasunaren irizpideen arabera, arriskuko kolektiboaren definizioan sartzeko moduko ikasleak.

Onartu beharra dago droga hori erabiltzea normalizatu egin dela, neurri batean. *Cannabisa*, testuinguru batzuetan, beste garai batean tabako kontsumoa bezain normalizatuta dago. Beharbada, tabakoa ordezkatu ere egin du, nerabezaroan nork bere burua kokatzeko, identifikatzeko eta irudikatzeko moduetan; hartara, tabakoak garai batean ematen zituen identitate eta heldutasun ezaugarriak orain *cannabis*ak ematen ditu, ziurrenik.

Beste alde batetik, ia ez da aldatu substantziarekin esperimendatzen hasteko adina, baina aldatu egin da, ordea, sexuaren arabera erabilera erdua. Nahiz eta gizonezko kontsumitzaileak gehiago diren eta haxix gehiago kontsumitzen

duzen, aldeak txikiagotu egiten ari dira pixkanaka, horrenbestez, kontsumoa emakumetu egin da, neurri batean, beste substantzia batzuen –hots, tabakoaren eta alkoholaren (legezkoak horiek)– kontsumoaren prebalentzian berresten den bezala.

3. Taula. Cannabis kontsumoaren prebalentzia hainbat alditan
EAEko ikasleen artean, sexusaren arabera, 2006 (ehunekotan)

Azken hilebetean			
Bekin ere ez	70,3	66,5	74,4
1-2	7,0	6,3	7,6
3-5	3,6	3,4	3,9
6-9	3,9	4,0	3,7
10-19	3,3	3,3	3,3
20-39	2,6	4,0	1,1
40 eta +	5,6	8,7	2,2
EE	3,7	3,7	3,7
GUZT	4.519	2.382	2.104

Era berean, gogora ekar dezagun azken urteotan **prebentzio ekintzei buruz** garatu diren **zenbait datu**, hainbat eremutan edo ikuspegi desberdinen bidez.

Prebentzio unibertsalari dagokionez, ondorengo taulan ikusten den bezala, urtean 200 proiektu inguru gauzatzen dira. Gehien garatu den esku hartzea biztanle guztiei zuzendutakoa izan delarik.


PU.1. Taula. Urtean gauzatutako proiektuak prebentzio unibertsalean (2004-2007)

JARDUERA ILDOAK	2004		2005		2006		2007	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
PU hainbat- Prebentzio unibertsale	6	1,7	3	0,6	1	0,2	2	4,2
PU eskola eremuan	63	17,7	76	16,8	86	17,8	78	16,5
PU familia eremuan	43	12,1	60	13,3	59	12,2	56	11,9
PU lan eremuan	21	0,6	4	0,8	9	1,9	5	1,1
PU gazte eremuan	6	1,7	8	1,6	6	1,2	7	1,5
PU zisitaldi eremuan	14	3,9	16	3,5	16	3,3	19	3,8
PU komunitate eremuan	35	9,8	42	9,3	37	7,7	29	6,1
PU genero ikuspegitik	1	0,3	0	0,0	0	0,0	0	0,0
PU komunitarioa	56	15,7	66	14,4	59	12,2	54	11,4
PUko proiektuak, guztira	189	47,8	209	46,2	214	44,4	195	41,3
PROIEKTUAK, GUZTIRA	356	100	452	100	482	100	472	100

Proiektuok gauzatzeko erakundeen laguntza ezinbestekoa izan da, eta egiturak, funtsean, honako zerbitzu hauek ditu osagai:

- 39 zerbitzu tekniko espezializatu; hainbat udalerritan (3 Araban; 14 Bizkaian; 13 Gipuzkoan) eta udalerritaldetan nahiz mankomunitatetan (3 Gipuzkoan eta 7 Bizkaian) banatuta.
- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko lan talde bat, 10.000 biztanle baino gutxiagoko 20 udalerritarako; hain zuzen, Foru Plana aurrera eramateko engaiaturik dauden udalerririk dira horiek.
- Beraien planak aurrera daramatzaten Gipuzkoa eta Bizkaiko 13 udalerririk, baliabide propioak (diru-laguntzarik jaso gabe) erabiltzen dituztenak.
- Beraien proiektu eta esku hartzeko ildoak dituzten gizarte ekimeneko 14 erakunde.


Garatutako ekintzen eraginpean izan den biztanle bolumena kontuan hartuz gero, zalantzarik gabe, eskolakoa izan da lanik gehien egin deneko eremua, eta horren irismena hurrengo grafiko honetan ikus daiteke:



Urte bakoitzean 100.000 ikasle baino gehiagora, 6.000 ikasgela ingurura iritsi da, tartean, gutxi gorabehera, 6.000 irakasle izan direlarik.

Halaber, **prebentzio selektiboan** garatutako proiektuak edo jarduketak (hau da, ahultasun edo arrisku handiagoko egoeran dauden biztanleei zuzendutakoak) eragin handia izan dute eskola eremuan, hurrengo datu hauek adierazten duten bezala:

PS.4. Grafikos. Eskolako prebentzio selektiboaren irismenari buruzko datuak (2004-2007)



Jarduera horiek, gehienbat, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) ikastetxe batzuetan eta Lanbide Hastapenatarako Ikastegietan (LHI) gauzatuak izan dira.

Nolanahi ere, programa selektiborik gehienak komunitate eremuari zuzendu egin zaizkio, tokiko ekipo teknikoaren eta, bereziki, gobernuz kanpoko erakunde espezializatu batzuen ekimenaren eta inplikazioaren ondorioz.

- Datuok ikusirik, zein irakurketa egiten dute zuzenago inplikaturiko profesionalek? Nola baloratzen dute urte guzti horien zehar egindako ibilbidea? Euren iritzirako, zein dira nabarmenki hobetu beharreko alderdiak? Era berean, euren iritzirako, zein dira lehenetsi behar diren jarduketara ildoak hurbileko etorkizuneari?

Txostenaren 5. kapituluak, luzeena dena, **adingabekoekin erlazionaturiko gizarte erakunde nagusien iritziak** biltzen ditu: hezkuntza erakundeak edo hezitzaileenak, ikasleen guraso elkarteenak, profesionalenak, osasun langileenak, udal teknikarienak, polizienak... Kasu askotan, hitzez hitzeko iritziak jasotzen dira, 41 elkarrizketetatik ateratako paragrafo esanguratsuen transkripzioaren bidez, oso gai desberdinei buruzko elkarrizketak egin zirelarik:

- gizarte testuinguruari eta gizarteak nerabeen kontsumoetan duen eraginari buruzkoak;
- familiei edo irakasleei buruzkoak;
- hedabideen betekizunari buruzkoak;
- bereziki zaugarriak diren nerabe sektore batzuei buruzkoak;
- prestakuntzarako eta kontsumoen joera berrietara moldatzeko beharrei buruzkoak;
- koordinazio handiagoa izateko beharrianari buruzkoak...

Hemen, adostasun handia eragiten duten funtsezko bi kontu nabarmenduko ditugu soilik, hain zuzen, esperientzian oinarritutako erabateko adostasuna dena.



Hasieratik esan dugunez, nerabeen droga kontsumoa aztertzen eta prebenitzen esperientzia handia pilatu dugu hamarkadetan zehar. Jarduketa asko burutu dira, esperimentatu, ebaluatu, oinarri gisa erabili eta jarrera bat defendatu ahal izateko. Horrek guztiak balio handia ematen die profesionalen iritziei.

Txostenak argi nabarmentzen ditu **hobetzeko premia handia duten bi arlo handi**, behintzat:

- 1) **Arlo honetan lanean diharduten instantzia guztien koordinazioa.**
- 2) **Prebentzio selektiboaren garapen handiagoa, arrisku edo zaurgarritasun egoera berezietan dauden nerabeen sektore berezientzat zuzendua.**

Arartekoaren lehenengo gomendioek, hain zuzen ere, bi gai edo jarduketa ildo horiek dituzte helburu (1etik 5erako gomendioak, erakundeen koordinazioa eta lidergoari buruzkoak; 6tik 11rako gomendioak, prebentzio selektiboari buruzko jardueren gainekoak, bereziki zaurgarriak diren pertsonen zuzendua).

- Alabaina, zehazpenetan sartu baino lehenago, garrantzizkotzat jotzen dugu **nerabeen iritziak, balioztapenak eta proposamenak** hemen islatzea.

Txostenak horixe egiten du kasu honetan ere, eta nerabeek eztabaida taldeetan esandakoaren zati handi bat erreproduzitzen du hitzez hitz, "freskura" berezia ematen diona testuari beti (ikus 153tik 177rako orrialdeak).

Beharrezko deritzogu nerabeen iritziak zuzen-zuzenean jakin eta aintzat hartzeari, gutxienez, bi arrazoi direla eta: 1) entzunak izateko eskubidea dutelako; eta 2) euren iritziak kontuan hartu eta parte hartzea lortuz gero, seguru asko, drogak prebenitzeko politika zuzenagoak eta arrakastatsuagoak suertatuko direlako.

Gogora ekar ditzagun iritzi batzuk, jarduketa modu jakin batzuk zalantzan jartzen laguntze aldera. Esate baterako:

- Informazioa jasotzea da nerabeek droga-mendekotasunak prebenitzeari buruz duten kontzeptua, eta bai, informazioa jaso, jasotzen dute, gehienbat, tutoretza orduetan eskolako mintzaldien bitartez. Alabaina, modu aktiboagoan jaso nahi dute informazioa, ez entzule gisa soil-soilik, hau da, hizketan jardun eta dituzten zalantzak profesionalen planteatuz. Era berean, zalantzak jendaurrean adieraztearen beldur dira, horrenbestez, komenigarri da konfiantza giroa sortzea, bai eta, konfidentziasun giroa ere.



- Bide parenteraleko heroinaren kontsumoa da okerren ikusten dena, eta toxikomano edo heroinaren mendekoei buruzko kontzeptua ez da horretara mugatzen. Izan ere, asteburuetan soilik edo eguneroko bizitzaren erritmoa jarraitzeko kontsumitzen dutenei zabaltzen zaie kontzeptua.
- Kontsumitzeko arrazoi nagusia aisialdia eta gozamina luzatzearena da.
- Argi dute zein den edozein droga mota eskuratzeko modua, eta ez dutela eragozpenik kontsumitu nahi duten substantzia lortzeko.
- Adinari dagokionez, euren ustez, gazteek alkohola gero eta lehenago probatzen dute. Zenbat eta urte gehiago izan, orduan eta argiago ikusten dute alkoholaren gehiegizko erabilera oso goiz hasten dela, bai eta eragiten dituen ondorioak ere. Sarri askotan, 16 urteko neska-mutilen testigantzak oso kritiko dira 13-14 urtekoen kontsumoekiko, eta ia eskandalizatu ere egiten dira.
- Gizonezkoak ez bezala, kontsumitzen duen emakumea ez dute begi onez ikusten.
- “Drogak klasifikatzeari” dagokionez, eta informatuak badaude ere, oraindik mantentzen dira zenbait mito substantzia jakin batzuk kontsumitzeari loturiko arriskuen kontuan, era berean, alde batetik, legezko drogak eta droga bigunak, eta bestetik, legez kanpoko drogak eta droga gogorak erlazionatzeko nolabaiteko nahastea dago. Horren ondorioz, –uste okerra bada ere– arriskuaren pertzepzioa txikiagotzen da legezkoztat jotako substantzietan.
- Gehienak *cannabisa* legeztatzearen alde daude. Hain zuzen ere, haren kontsumoaren normaltasunaren eta egunerokotasunaren eta egoera juridikoaren (debekua) artean dagoen ageriko kontraesana salatzen dute.
- Halaber, tabakoaren kontrako legearen egiazko betetzeari kritika handia egiten diote. Adingabekoei tabakoa saltzeri dagokionez: *“Ez dago esaten duten bezain araututa, nahi dutena erretzen dute, nahi duten marka erosten dute eta nonahi erretzen dute”*, esan du erretzen ez duen batek.
- Taldean onartzen diren kontsumoei buruz eta onartzen ez direnen buruz, euren kodeak dituzte.
- Oraindik ere familia hartzen dute erreferentzia nagusitzat. Alderantziz, poliziaren esku hartzeen inguruko ikuspegi zeharo negatiboa dute.



- Kontraesan handia ikusten dute helduek esaten dutenaren eta egiten dutenaren artean. Hau da, euren ustez helduek esaten dute gazteek ez dutela drogarik hartu behar, baina helduen jarrera ez dator horrekin bat.

Nerabeekin antolatutako lan taldeetan jaso diren iritzi eta balioztapen horiek zein beste askok gogoeta elementu gisa balio behar digute, bai eta, gauzatzen ditugun politikak eta ondorioak berrikusteko tresnak ere.

- Jarraian, **Arartekoak egindako gomendioak** adierazten dira, kasu honetan, 21 **gomendio** direlarik.
 - erakundeen koordinazioari eta lidergoari buruzko 5 gomendio;
 - prebentzio selektiboko jarduketei buruzko 6 gomendio;
 - eskola eremuari begirako 3 gomendio;
 - familia eremuari begirako beste 3 gomendio;
 - aisia eremuari begirako 2 gomendio;
 - eta gizarte ikuspegiari eta nerabeen parte hartzeari buruzko beste 2 gomendio.

A. ERAKUNDEEN KOORDINAZIOARI ETA LIDERGOARI BURUZKO GOMENDIOAK

Droga kontsumoa nerabezaroan eta gaztaroan prebenitzeko eta murrizteko burutzen diren jardunak asko eta mota askotakoak direla agertzen du txostenak. Gainera, ekimen askoren fruitu dira; erakundeen eta gizarte eragileen ekimenak.

Elkarrizketa egin zaien pertsona ia guztiek koordinatzeko beharra, behar bezalako esku hartzea lortzeko eta erdietsi nahi diren helburuak lortzeko nahitaezko baldintza gisa, gailendu dute. Aldi berean, koordinazio falta lanean topatutako arazorik edo hutsunerik handiena dela adierazi dute eta aipatu egoera pertsona horien borondateari edo borondate onari esker gainditu da.

Adingabeekin esku hartzen duten agenteen arteko koordinazio hobearen eta, batez ere, erakunde arteko koordinazio hobearen falta sumatu dugu. Zuzeneko esku hartzeetako koordinazioa ez ezik, zabaldu beharreko planei eta programei, helburuei eta xedeei, mezuei dagokienez ere...

lido horretan, honako hau antzeman da: erakundeen lidergo hobearen eskaera, esku hartze integrala sustatzeko edo, behintzat, lanaren jarraibideak argiago ezartzeko, praktika edo mezu desegokiak zuzendu eta lortzen diren helburuak ebaluatu ahal izateko agintaritza eta gaitasuna duen instantzia baten beharra.



Hori guztiari jarraiki, Arartekoak honako gomendio hauek egin ditu:

1. **Koordinazioaren hobekuntza, barrukoa zein sektore eta erakunde artekoa, planteatzea, droga-mendekotasunei buruzko hurrengo planetako lehentasuneko helburu gisa, (zerbitzuak eta esku hartzeak bikoiztu ez daitezzen eta baliabideak pertsonalak, ekonomikoak eta materialak optimiza daitezzen).**
2. **Beharrezkoa denean, Droga Mendekotasunen Aholku Kontseiluaren osaera eta dinamika berrikustea (koordinazio organo eta instantzia ordezkari guztien gizarte eztabaidaren foro gisa eraginkortasun handiagorekin jardun dezan).**
3. **Orain dauden baliabideen prestakuntzarik eta kualifikaziorik onena sustatzea eta laguntzea.**
4. **Programen diseinuan ebaluazioa barne hartzea. Hala, ebaluazio sistematikoa, prozesuarena zein eraginarena, proiektuen eta programen erabilera eta eraginkortasuna egiaztatzeko nahitaezko praktika izan dadin.**
5. **Adingabeak tartean dauden kasuetarako, polizi esku hartzearen protokolo bateratua eta espezifikoa ezartzea.**

B. PREBENTZIO SELEKTIBOKO JARDUKETEI BURUZKO GOMENDIOAK

Txostenak agerian jarri duen moduan eta ohi bezala, azken urteotan burutu diren esku hartze gehienak biztanleentzako edo adingabeentzako bideratu dira. Eta, segur aski, hala izaten jarraitu behar da.

Ordea, berehalako erronka prebentzioaren garapenean dagoela uste da. Aipatu prebentzioa, modu espezifikoa, zenbait faktoregatik bereziki zaugarriak diren pertsona talde jakinei zuzenduta dago. Horixe da, zirt edo zart, aurrera egin beharreko gairik garrantzitsuena. Eta esku hartze mota hori gehien behar duten biztanleriaren sektoreen edo egoeren artean, gutxienez, honako gomendio hauetan jasotzen direnak aipatu dira:

6. **Egoera ahulean dauden biztanleen urritasun psikosozialak eta gizarte heziketakoak (presentismoa, oldarkortasuna, autokontrol urria, nork bere buruarekiko ikuspegi urria, motibazio urria...) gainditzeko prebentzio selektiboko programak garatzea.**



7. Kontsumo problematikoak eta justiziarekin arazoak dituzten adingabeentzako programak garatzea (arazoak askotan kontsumo horien ondoriozkoak dira).
8. Buru osasuneko arazoak dituzten adingabeentzako programak garatzea.
9. Bereziki ahulak edo zaurgarriak diren sektoreentzako –bakarrik dauden adingabe atzerritarrak adibidez– programak garatzea (gure artean oso zabaldua ez dauden baina ondorio larriak dituzten kontsumoak –besteak beste, disolbatzaileak edo inhalatzaileak kontsumitzea– saihestu edo aintzat hartzea).
10. Arazo eta zailtasun sozioekonomiko eta kultural asko dauden guneetan, alegia, adingabeak eskubide guztiak barne hartzen dituen bizimoduan sartzea zaila den eta bazterkeria egoeran geratzeko arrisku larriak egon daitezkeen guneetan, programa integralak garatzea. Hori guztia drogak maiztasun handiarekin kontsumitzeagatik, delituak egiteagatik...
11. Gaur egun dauden prebentzio selektiboko programak egokiak suertatzen ez bazaizkie, kontsumo problematikoak edo/eta jokabide arazoak dituzten adingabe edo gazteentzako prebentzioaren berariazko arretaren baliabideak bermatzea. Era berean, gaur egungo baliabideak nahikoak ez badira, mota horretako baliabide berriak sortzea.

C. ESKOLA EREMUARI BEGIRAKO GOMENDIAK

Esan bezala, drogen kontsumoa prebenitzaileentzako gehien landu den esparrua eskolakoa izan da eta hori ekimen, programa eta material anitzen bidez gauzatu da.

Halaber, kasu honetan talde zaurgarrienentzako prebentzio jarduerak indartzeko beharra planteatu da, ikasle guztientzat direnak alde batera utzi gabe. Ildo horretan, hobekuntza batzuen beharra hizpide izan du txostenak, honako gomendio hauetan adieraz ditzakegunak:

12. Babesteko faktoreak indartzeko baterako estrategiarentzat erakunde arteko konpromisoa lortzea (Hezkuntza, Osasun eta Gizarte Ekintzaren bidez); konpromiso horrek honako jarduerak sustatu ditzala:
 - Zentzuzko drogen kontsumoarekin eta lotutako beste jokabide batzuekin zerikusia duten arrisku faktoreak gainditzeko erabilgarritzat jotzen diren irizpideak, orientazio eta bitarteko pedagogikoak ematea.



- Irakasleen prestakuntza eta motibazioa sustatzea, prebentzio lanean konpromiso handiagoa eta eraginkorragoa lortze aldera.
 - Zentroei eremu batzuetako profesionalen babes eta aholku gehiago ematea, drogen kontsumoa eta lotutako beste jokabide batzuk prebenitzeko proiektuak gara daitezzen.
13. Bereziki ahulak edo zaurgarriak diren biztanle sektoreak biltzen diren edo eskola porrot edo eskola uzte tasa gehien dagoen zentroei arreta berezia ematea.
14. Lanbide heziketarako ikastetxeetan burutzen diren edo antzeko ezaugarriak dituen beste zentro batzuetan burutu daitezkeen eskolako prebentzio selektiboko programen esperientziak (gaur egungo Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak –HLPP–) baloratu eta bultzatzea.

D. FAMILIA EREMUARI BEGIRAKO GOMENDIAK

Familia eremuari dagokionez, txostenean kontraesankorra dirudien egoera antzeman da. Alde batetik, argi dago funtsezko testuingurua dela, alegia, babesak eman, prestatu, aholkuak eman, orientatu... behar den eremua dela, drogen kontsumoarekin zerikusia duten faktoreak gaindi daitezzen edo, hala badagokio, horri lotuta egon daitezkeen jokabide edo jarrera gatazkatsuak hobeto kudea daitezzen. Askotan, familiak berak –edozein motatakoa dela ere– babesik gabe dagoela edo beste eragile batzuen eskuetan uzten duen egiteko horri aurre egiteko baliabideak edo gaitasunak ez dituela sentitzen du. Hala eta guztiz ere, askotan, ikastetxeetan edo elkarteetan familientzako jarduerak ematen direnean, parte hartzea oso txikia da edo, agian, gutxien behar duten familiena.

Nolanahi ere, antzemandako muga horiek guztiak egon arren, eremu horretan familiei babesak ematen jarraitzeko beharrari buruz erabateko adostasuna dago. Babes hori honako gomendio hauetan zehatz daiteke:

15. Familien prestakuntza, parte hartzea eta konpromisoa ekimenen bidez sustatzea. Ekimen horiek urtetan zehar garatuak izan dira ikastetxe askotan, hala nola, gurasoen eskolak edo beste antzeko batzuk.
16. Premia gehien duten edo arazo gehien duten familiei babesak ematea, baita bitartekotza programa edo formulekin ere. Horretarako, tartean dauden zerbitzu guztien (eskola, gizarte zerbitzuak, gizarte hezitzaileak...) beharrezko koordinazioa bilatzen da.



- 17. Gaur egun dauden prebentzio selektiboko programak egokiak suertatzen ez bazaizkie, kontsumo problematikoak edo/eta jokabide arazoak dituzten nerabeen eta gazteen familientzako berariazko arretaren baliabideak bermatzea. Era berean, gaur egungo baliabideak nahikoak ez badira, mota horretako baliabide berriak sortzea.**

E. AISIA EREMUARI BEGIRAKO GOMENDIAK

Segur aski esku hartzeko eremu hau izango da biztanleek gutxien ezagutzen dutena. Hori gorabehera, eremu hau funtsezkoa da, nerabeen kontsumo gehienak, hasieratik, bertan gauzatzen baitira. Nerabeek une horretan lortu eta kontsumitzen dute droga: aisialdian eta aisialdiko gunetan. Hori dela eta, kaleko lanaren eta hezkuntzaren garrantzia, errealitate jakin batzuk zuzenean ezagutu eta azpimarratzeko modu pribilegiatua baita.

lido horretan, honako bi gomendio hauek planteatu dira:

- 18. Profesional batzuk, ingurune irekian eta sustapen soziokulturalean, burutzen ari diren hezkuntza lana aintzat hartu eta babestea. Aipatu lana askotan baliabide gutxirekin eta bereziki problematikoak diren sektoreekin egin da.**
- 19. Nerabeek eta gazteek erabiltzen dituzten gunetan, prebentzio selektiboko programak garatzea.**

F. GIZARTE IKUSPEGIARI ETA NERABEEN PARTE HARTZEARI BURUZKO GOMENDIOAK

Dagoeneko gizartean drogei buruz antzeman daitezkeen ohiko kontraesanak eta inkoherentziak gailendu ditugu: inkoherentziak praktiken eta mezuen artean; helduen kontsumoen eta nerabeen inguruan defendatutako irizpideen artean; pertsonaia publikoek protagonizatutako drogaren aurkako kanpainak, guztiok dakigunean kontsumatzen dutela; egiarekin bat etortzen ez den informazioa; haurren ordutegian publizitate desegokia... Horrek guztiak gizarte ikuspuntu edo ikuspegi jakina eratzten du.

Halaber, adingabeek horri buruz duten ikuspegia nabarmendu dugu; ikuspegi hori beti ez dator bat helduenarekin edo, behintzat, helduen ustez adingabeek eduki beharko luketenarekin.



Arartekoak ildo horretan egindako bi gomendioek gizarte diskurtsoaren inkoherentziak saihestu nahi dituzte, baita nerabeen iritzia edo ahotsa barne hartu ere.

20. Informazioa zaintzea eta nerabeei, bereziki, komunikabideetan emandako publizitatearen eta informazioaren bidez, helarazten zaizkien mezuetan inkoherentzia saihestea.

21. Nerabeentzako programa edo ekimenetan, nerabeen parte hartze aktiboan laguntzea. Prebentzioaren eragile gisa duten egitekoa sustatzea.

* * *

Beti bezala eta aurkezpena bukatu aurretik, Ararteko erakundearen izenean, **eskerrak** eman nahi dizkiegu txosten hau egiten lagundu duten pertsona guztiei: eremu ezberdinetako profesionalak; erakundeetako arduradunak, senideak, nerabeak, sozietateen munduko eragileak... Era berean, eskerrak Drogamenpetasunen Deustuko Institutuari, txosten honetako eta azken urteotan egindako txosten askoren oinarritzko azterlanak gauzatu dituelako.

Txostena egiteko denbora luzatu egin da, eta Batzorde honetan aurkezpena egiten ari garen bitartean, **Droga-mendekotasunei buruzko Plan berria** (VI.a izango dena) egiteko eta onartzeko beharrezko urratsak ematen ari dira. Txostenak eta gomendioek Plan egokia egiten lagunduko dutelakoan gaude, aldi berean, legebiltzarkide gisa, zuen jarduketetan tresna erabilgarria suerta dakizuekeela esperoan gaude, era berean, adingabeek osasunerako eta bizitza osasungarrirako duten eskubidearen bermeak hobetzea nahi dugu.

Eskerrik asko emandako arretagatik, eta zuen hitzen zain geratzen naiz.